

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2023ko ekainaren 14a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Ana Priede Merchan zinegotziak (PSE-EE-PSOE) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

GAI BAKARRA.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, akta hauen zirriborroak: 2022ko urtarrilaren 27ko, otsailaren 24ko, martxoaren 31ko, apirilaren 28ko, maiatzaren 26ko, uztailaren 28ko, irailaren 29ko, urriaren 27ko eta 2023ko maiatzaren 25eko ohiko bilkuretakoak eta 2022ko ekainaren 27ko, azaroaren 30eko eta abenduaren 22ko ezohiko bilkuretakoak.

Esan-eginak

GAI BAKARRA.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, AKTA HAUEN ZIRRIBORROAK: 2022KO URTARRILAREN 27KO, OTSAILAREN 24KO, MARTXOAREN 31KO, APIRILAREN 28KO, MAIATZAREN 26KO, UZTAILAREN 28KO, IRAILAREN 29KO, URRIAREN 27KO ETA 2023KO MAIATZAREN 25EKO OHIKO BILKURETAKOAK ETA 2022KO EKAINAREN 27KO, AZAROAREN 30EKO ETA ABENDUAREN 22KO EZOHICO BILKURETAKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork zirriborroen edukiari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA akta hauek: 2022ko urtarrilaren 27ko, otsailaren 24ko, martxoaren 31ko, apirilaren 28ko, maiatzaren 26ko, uztailaren 28ko, irailaren 29ko, urriaren 27ko eta 2023ko maiatzaren 25eko ohiko bilkuretakoak eta 2022ko ekainaren 27ko, azaroaren 30eko eta abenduaren 22ko ezohiko bilkuretakoak.

Udalbatzarra amaitu aurretik, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta zorionak ematen dizkie Anuska Esnal alkateari eta bere taldeko zinegotzi guztiei, EH Bildu talde politikoak 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetan izandako arrakastagatik. Esaten du, baita ere, 2023-2027 udal-agintaldian lanean segituko duela Orioko herriaren alde, Noemi Ostolaza eta Jon Basurko zinegotzi-lagunekin batera.

Adierazten du, bestalde, pena dela Ana Priede zinegotzia ez izatea udalbatzarraren bilkura honetan, eta besarkada handi bat bidali nahi diola, bi udal-agintaldi osotan –hau da, azken zortzi urteotan– aritu direlako elkarlanean, eskuz esku, eta frogatu diolako oso pertsona langilea dela, grina handikoa.

Lourdes Salsamendi zinegotziak, azkenik, adierazten du ez zuela espero Amaia Gozategi zinegotzia ondoan ez izatea 2023-2027 udal-agintaldi honetan.

Amaia Gozategi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du 2019-2023 udal-agintaldi honen hasieran ez zeukala inolako esperientziarik politikan, baina agintaldian zehar asko ikasi duela, abentura pertsonal polita izan dela, eta pena handia ematen



diola 2023-2027 udal-agintaldian ez jarraitzeak. Bukatzeko, eskerrak ematen dizkie zinegotzi guztiei.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du berak ere ez zuela espero hauteskunderen emaitza izan dena izatea; baina eguneroko lanean segitzea tokatzen dela orain, horrek balio duelako azkenean. Esaten du, baita ere, ilusioz beteta dagoela 2023-2027 udal-agintaldiak ekar dezakeenarekin eta, bukatzeko, besarkada handi bana bidaltzen die bertaratutako guztiei.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,